EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# Ordezkagunea
# – Erabiltzeko gida –

**2026ko Abuztua**

# AURKIBIDEA


1 Plataformaren aurkezpena ........ 4
2 Atarirako sarbidea ........ 5
2.1 Erabiltzailearen identifikazioa ........ 5
2.2 Pasahitza berreskuratu ........ 5
3 Aukeren menua ........ 7
3.1 Nire datuak ........ 7
3.1.1 Lanpostua aukeratzeko informazioa ........ 7
3.1.2 Datu pertsonalak ........ 9
3.1.3 Helbidea ........ 9
3.2 Lanpostuen eskaera ........ 11
3.3 Esleipenaren kontsulta ........ 11
3.4 Nire zerrendetako kokapena ........ 11
3.5 Pasahitza berrezarri ........ 13
4 Lanpostuen kudeaketa ........ 14
4.1 Lanpostuen aukeraketa ........ 14
4.2 Eskaera baieztatu eta bidaltzea ........ 18
4.3 Esleipenaren kontsulta ........ 19
4.3.1 Aribideko eskaintza (k) ........ 19
4.3.2 Eskaintza Historia ........ 22
4.3.3 Esleipena errefusatu........ 22
5 Lan egoera ........ 26
5.1 Lan egoerari buruzko informazioa ........ 26
5.2 Lan egoeraren historikoa ........ 27
5.3 Lan egoera aldatzea ........ 28
5.4 Behin-behineko zigorra: ez aurkeztea justifikatzea ........ 29
5.5 Babestutako egoera aktibatzeko eskaera ........ 31
5.6 Interesgarriak diren ordu tarteak ........ 34
6 Datu ekonomikoen eskaera ........ 35
7 Ohiko zalantzak: F.A.Q's ........ 40
7.1 Informazio orokorra ........ 40
7.1.1 Ordezkagunea, plazak esleitzeko sistema berria al da? ........ 40
7.1.2 Ez dut deirik jasoko ikastetxeen plazen esleipenak esleitu zaizkidan jakiteko? ........ 40
7.1.3 Ordezkagunerako sarbide-datuak, Hezigunerako sarbide-datuen berdinak al dira? ........ 40
7.1.4 Zein gailu/nabigatzailerekin erabil dezaket Ordezkagunea? ........ 40

7.2 Helbidea eta harremanetarako datuak balioztatu ..................................... 40
7.2.1 Zelan balioztatu dezaket nire helbidea? ............................................ 40
7.2.2 Aldatu dezaket nire helbidea balioztatu baino lehen ? ........................ 40
7.2.3 Helbidea aldatu dezaket behin balioztatua izan eta gero? ................. 40
7.2.4 Zergatik da beharrezkoa helbidea balioztatzea? ................................ 41
7.2.5 Zelan kalkulatzen du atariak distantzia? ............................................ 41
7.2.6 Zein datu balioztatu edo aldatu ditzaket? ........................................... 41
7.3 Eskabide/esleipenen kudeaketa prozesua ............................................... 42
7.3.1 Egunero argitaratuko dira ikastetxeen beharrak betetzeko lanpostuak? 42
7.3.2 Komenigarria da egunero plazen hautaketa egitea? .......................... 42
7.3.3 Lan egiteko moduan banago baina ez badut eskabiderik egin, plazarik esleitu diezadake sistemak? ...................................................................... 42
7.3.4 Zirriborro egoeran dagoen eskaera batean, plaza gehiago gehitu ditzaket? ........................................................................................................ 42
7.3.5 Eskaera nire nahiekin bat datorrela ziurtatu behar dut bidali aurretik? 42
7.3.6 Aldatu dezaket bidalitako eskaera? ................................................... 42
7.3.7 Eskatu ditzaket 50 km baino gehiagora dauden plazak, eskaera orokorrean aukera horri uko egin badiot? .................................................... 42
7.3.8 50 km baino gehiagora dauden plazekiko interesaren aukera gaitzen/desgaitzen badut, aukerak bere horretan dirau aldaketa berri bat egin arte? ............................................................................................................ 43
7.3.9 Zein ordu tartetan egin dezaket eskaera? .......................................... 43
7.3.10 Zer gertatuko litzateke zirriborro egoeran dagoen eskaeraren bidalketa egingo ez banu? ........................................................................ 43
7.3.11 Zer gertatuko litzateke eskaera horretarako ordu tartea igaro ondoren bidaliko banu? ............................................................................................. 43
7.3.12 Egunero kontsultatu behar ditut esleipenak Ordezkagunean? .......... 43
7.3.13 Oharrik jasoko al dut plazarik esleitzen bazait? ............................... 43
7.3.14 Zer gerta daiteke esleitutako plazan aurkezten ez banaiz? .............. 43
7.3.15 Zergatik da garrantzitsua edozein lan egin ezinen aurrean, ordezkaritzara abisatzea? ........................................................................... 43
7.3.16 HLE kategorian lanean banago, irakasleen kolektiboko plazak aukeratu ditzaket? ......................................................................................... 44
7.3.17 HLE kategorian lanean banago, eta irakasle plaza bat esleitzen bazait, zer egin beharko nuke? .................................................................. 44
7.3.18 Adibidez HLE kategorian lanean banago, irakasle kolektiboan nahitaezko plaza bat esleitu ahal didate? .................................................. 44
8 Eranskina ....................................................................................... 45

8.1 Ordezkagunean parte hartu eta esleipenen prozesua............................... 45

# 1 Plataformaren aurkezpena

Ordezkaguneak Euskadiko hezkuntza-zentro publikoetan hutsik dauden lanpostuetarako (irakasle zein hezitzaile) eskaerak elektronikoki kudeatzeko aukera ematen die langile hautagaiei.

**1. Ezinbesteko datu pertsonalak berrikusi/eguneratu/biltzea, hala nola:**

a. Harremanetarako datuak, ordezkaritza hautagaitza duten langileekin elektronikoki komunikatzea errazteko. Hala nola posta elektronikoa eta telefono mugikorra.

b. Zenbait kasutan, hautagaien ohiko helbidea berrikustea/eguneratzea, haren kudeaketa eta geokokapenerako, behar izanez gero sistemak haien ohiko helbidearen eta edozein ikastetxeren arteko distantzia (km) kalkula dezan.

c. **Atal honetan jasotako datuen berrikuspena eta eguneratzea nahitaez balioztatu behar da aplikazio berri honetan**.

**2. Hezkuntza-zentro Publikoetako plazen estalduraren kudeaketa.**

Plataforma honen ezarpenak ekintza hauek barne hartuko ditu:

a. Hezkuntza-ikastetxe publikoetan dagoen lanpostu hutsen estaldura-eskaintzara eta plaza horien ezaugarrietara egunero sartzeko/kontsultatzeko aukera ematea.

b. Langile hautagaiek euren interesekoak diren lanpostuak eskatzeko aukera erraztea eskaintzaren barruan dauden lanpostuak estaltzeko, baita eskaeren lehentasuna ere.

c. Plazen eskaera Hezkuntza Sailera bidaltzea.

d. Sailak egunero egiten duen esleipenerako sarbidea eta, gainera, jakinarazpena jasotzea bide hauen bidez: posta elektronikoa, SMSa edo jakinarazpena telefonoz/smartphonez.

**3. Hautagai-zerrendetako posizioaren kontsulta.**

**4. Esleipenaren xehetasunen kontsulta.**

Horregatik guztiagatik, oso garrantzitsua da hautagaien langileen datu zuzen eta fidagarriak eskuragarri egotea. **Horrenbestez, hautagaitza-langileek *nahitaez* ORDEZKAGUNEA aplikazio berrira sartu eta beren datu pertsonalak balioztatu beharko dituzte. (Telefonoa, posta elektronikoa eta helbidea).**

# 2 Atarirako sarbidea

Atarian sartu ahal izateko webgunea hau dugu: https://ordezkagunea.euskadi.eus .

## 2.1 Erabiltzailearen identifikazioa

Plataforma honetan sartu ahal izateko, derrigorrezkoa da, NAN zenbakiaren eta pasahitz baten bitartez egitea. Erabiltzaile eta pasahitz hauek, “Irakaslegune” eta “Hezigunea” plataformentzako ere balio dute.




Behin erabiltzailearen datuak sartuta izanda (NAN + pasahitza), “Sartu” botoian sakatu.

## 2.2 Pasahitza berreskuratu.

Pasahitza ez baduzu gogoratzen, atariak “Pasahitza ahaztu duzu” estekaren bitartez berreskuratzeko aukera ematen dizu.



Esteka horrek hurrengo pantailara eramango gaitu:




Bertan hurrengo datuak bete behar dira:

**1]** Dokumentu mota aukeratu (NAN edo egoiliar txartela).

**[2]** Dokumentu motaren zenbakia adierazi.

**[3]** Dokumentuaren iraungitze data adierazi.

**[4]** Jaiotze data adierazi.

Baieztapen testua sartu beharko dugu **[5]**, eta "*datuak benetakoak direla baieztatzen dut*" aukeran klik egin **[6]**.

"*Jarraitu*" botoian klikatu **[7]**, eta minutu batzuk barru SMS bat jasoko duzue pasahitz berriarekin, "Hezigunean" adierazitako mugikorrera.

# 3 Aukeren menua

Aukeren menua pantailaren goiko eskuineko bazterrean dago, identifikatutako erabiltzailearen izen-abizenekin. Une oro, sistemara sartzen diren pertsonek menu honetatik atariko atal ezberdinetara sartzeko aukera izango dute (nire datuak, lanpostuen bilatzailea, pasahitza aldatzea, zerrendetako posizioaren kontsulta...).




Menu honek sisteman saioa amaitzeko aukera ematen du (“Saioa itxi”), baita nabigazio hizkuntza aldatzeko ere.

Jarraian menu honetako elementu bakoitzaren funtzionamendua azaltzen da.

## 3.1 Nire datuak

Atal honetan hezkuntza-ikastetxe ezberdinetako eguneroko plazen estaldura-eskaintzara sartu ahal izateko beharrezkoak diren datu pertsonalak eguneratu/osatu ditzakezu.

Saioa hasten denean, orrialde honetara sartuko da, eta identifikatutako pertsonari falta zaizkion datuekin berrikusi eta osatu beharko da.

Orrialdea bi arlotan banatuta dago: "Plazak aukeratzeko informazioa" eta "Datu pertsonalak".

### 3.1.1 Lanpostua aukeratzeko informazioa

Atal honetatik, eguneko orduaren arabera, hautagaien aukera desberdinak konfiguratu ahal izango dira, lanpostuen hautapenari edo esleipenean duten tratamenduari eragiten diotenak: distantziako lehentasunei eta lan-egoerari buruzko informazioa.

Langile hautagaiak zein kolektibokoak diren kontuan hartuta (irakaslea eta/edo hezitzailea), atarian dagozkion aukerak agertuko dira. Alegia:

- Irakasle kolektiboaren parte bagara, kolektibo honetako lanpostuei dagozkien aukerak ageriko zaizkigu.
- Hezitzaile kolektiboko parte bagara berriz, hezitzaile kolektiboko lanpostuei dagozkien aukerak ageriko zaizkigu.
- Hezitzaile zein irakasle kolektiboetan aritzen bagara, aukera biak ikusi ahal izango ditugu.




Kolektiboen araberako aukerak hurrengoak dira:

- Distantzia-hobespena: ezarpen honek, gure helbidetik 50 kilometro baino gehiagora dagoen ikastetxe batean lanaldi murriztuko plazen derrigorrezko esleipenean parte hartu nahi duzun ala ez, ezartzen du. Konfigurazio hori independentea da bi kolektiboen artean, hau da, irakasle eta hezitzaileen zerrendetan dagoen hautagai batek lehentasun ezberdina izan dezake kolektibo bakoitzerako (hobespen bakarra kolektibo bakoitzeko).
- Lan-egoera: langile hautagaien lan-egoera bistaratzen da, eta, horren arabera, aldatzeko dauden aukerak. Gaiaren konplexutasuna kontuan hartuta, lan-egoeraren kudeaketa gidaren puntu zehatz batean jorratzen da.

## 3.1.2 Datu pertsonalak

Atal honetan erabiltzailearen harremanetarako informazioa zein familiaren helbidearekin lotutako informazioa kontsultatu/aldatu ditzakegu.




"Harremanetarako datuak" atalean derrigorrezkoa da gutxienez telefono mugikor baten zenbaki bat eta posta elektroniko helbide bat sartzea:

- Gutxienez lau telefonoetatik bat, telefono mugikorra izan behar da, kontuan izanda sistemak 6 edo 7rekin hasten den edozein zenbaki identifikatzen duela telefono mugikor gisa. Datu hauek edozein unetan aldatu ditzakegu.
- Kontuan izan behar dugu hautagaiei jakinarazpenak telefonoz edo posta elektroniko bidez helaraziko zaizkiela.

## 3.1.3 Helbidea

Bizi garen helbidea nahitaezkoa da uneoro hautagaientzat.

Hautagaien helbideari buruzko informazioa dagoeneko balioztatuta badago, ezin izango da ataritik aldatu, eta beharrezkoa da dagokion lurralde ordezkaritzara jotzea izapide hori egiteko.



Bestela, hau da, familiaren helbideari buruzko informazioa bete/balioztatu ez duten pertsonal hautagaien kasuan, sistemak berak adieraziko dio erabiltzaileari ekintza horietakoren bat egitea beharrezkoa dela. Helbidearen informazioa hutsik eta/edo eremu editagarri gisa bistaratuko da, eta "Jarraitu" botoia bistaratuko da amaitutakoan.




“Jarraitu” botoia sakatzerakoan, sartutako helbidea mapa baten agertuko zaigu.




Helbidea zuzena bada “Helbidea balidatu eta datuak gorde” botoian sakatu behar dugu **[1]**.

Zuzena ez bada, “Atzera bueltatu” botoian sakatu eta behar den moduan bete beharko ditugu datuak **[2]**.

Helbidea ez badugu aurkitzen “Ez dut helbidea aurkitzen” botoian klik egin eta helbidea eskuz jarri beharko dugu.



## 3.2 Lanpostuen eskaera

Menu honetatik lanpostuen bilatzailera sar zaitezke. Bilatzailearekin lotutako informazio guztia gidan lanpostuen kudeaketari eskainitako atalean azaltzen da.

## 3.3 Esleipenaren kontsulta

Menuko puntu horretatik, uneko eta amaitutako eskaintzetan eskatutako eta esleitutako plazei buruzko informaziora sartzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gidako 4.3 atala, Esleipenaren kontsulta

## 3.4 Nire zerrendetako kokapena

Informazio hau A (irakasleak) eta/edo F (hezkuntza berezia) deialdietan dauden hautagaiek soilik izango dute eskura. Hautagai bat deialdi horietako bakarrekoa bada, zuzenean sartuko da informazio horretara.

Bi deialditakoa bada, aldiz, zeinetako informazioa kontsultatu nahi den hauta daiteke.




Bi kasuetan ageriko den informazioa hurrengoa da:

- "Non egin nahi dituzu ordezkapenak?": ordezkapenak egiteko pertsonak hautatu dituen probintzia eta lanaldi-mota lehentasunak adierazten ditu. Hautagaiak irizpide horiek betetzen dituzten plazak baino ezin izango ditu eskuratu.
- “Informazio egiaztatua”: Hautagaiak zein hizkuntza eskakizun betetzen duen erakutsiko digu.
- “Inpartizioari buruzko informazioa”: ordezkapenak egiteko pertsonak aukeratu dituen irakasteko hizkuntza-eskakizunen lehentasunak adierazten ditu. Pertsonak irizpide horiek betetzen dituzten plazak baino ezin izango ditu eskuratu.

Gero hautagaia zein zerrendetan dagoen izena emanda ageriko zaigu:



ordezka gunea

XXX XXX

Azken konexio data: 2021/09/30 15:57:10

Zerrendetan dudan posizioa ▸ Mi posición en listas convocatoria

## Irakaskuntza-zerrenden informazioa

### Nire profila

NON EGIN NAHI DITUZU ORDEZKAPENAK?

Álava: **Bai** (Lanaldia **Osoa eta murriztua** ) Guipuzcoa: **Ez** (Lanaldia **Zehaztu gabe** ) Bizkaia: **Bai** (Lanaldia **Osoa eta murriztua** )

INFORMAZIO EGIAZTATUA

Hizkuntza-eskakizuna: **2. HE** Zeinu-mintzaira: **Maila 0**

Ingelesa: **Ez** Frantsesa: **Ez**

IMPARTIZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Hizkuntza-eskakizuna: **2. HE (Edo txikiagoa)**

Ingelesa: **Ez** Frantsesa: **Ez**

### Nire zerrendak *(Informazioa deialdi orokorrerako bakarrik eskuragarri egongo da (A))*

| MAILA | ESPEZIALITATEA/IKASGAIA | DEIALDIA | |
|---|---|---|---|
| IRAKASKUNTZA ERTAINAK (20) | HEZKUNTZA-ORIENTABIDEA (0256) | A | Kontsultatu xehetasunak |
| IRAKASKUNTZA ERTAINAK (20) | CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEKOA HIZKUNTZA-GIZART. (0986) | A | Kontsultatu xehetasunak |
| IRAKASKUNTZA ERTAINAK (20) | INTERBENTZIO SOZIOKOMUNITARIOA (1521) | A | Kontsultatu xehetasunak |
| IRAKASKUNTZA ERTAINAK (20) | GIZARTEARENTZAKO ZERBITZUAK (1568) | A | Kontsultatu xehetasunak |
| IRAKASKUNTZA ERTAINAK (20) | HIZKUNTZA INDARTZEKO IRAKASLEA (1970) | A | Kontsultatu xehetasunak |

Atzera bueltatu

Copyright 2021 ©

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Zerrenda bakoitzean, "xehetasunak kontsultatu" botoian klik eginez, hautatutako zerrendaren xehetasunera sartzen zara.



### Nire profila

NON EGIN NAHI DITUZU ORDEZKAPENAK?

Álava: **Bai** (Lanaldia **Osoa eta murriztua** ) Guipuzcoa: **Ez**(Lanaldia **Zehaztu gabe** ) Bizkaia: **Ez**(Lanaldia **Zehaztu gabe** )

INFORMAZIO EGIAZTATUA

Hizkuntza-eskakizuna: **2. HE** Zeinu-mintzaira: **Maila 0**

Ingelesa: **Ez** Frantsesa: **Ez**

IMPARTIZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Hizkuntza-eskakizuna: **2. HE (Edo txikiagoa)**

Ingelesa: **Ez** Frantsesa: **Ez**

Informazioa sortu den eguna eta ordua: 2022/06/13 12:02:09

**Deialdia: ZERRENDA OROKORRA (A) - Maila: ENSEÑANZA PRIMARIA (LOGSE) (16) - Ikasgaia/Espezialitatea: EDUCACION PRIMARIA (0951)**

**Aurreko pertsonak, lanaldi motaren eta profilaren arabera:**

Araba

ordena-zenakia: **00075**

| TIPO JORNADA DE LA PLAZA | PLAZAREN PROFILA | | |
|---|---|---|---|
| | PL 0 | PL 1 | PL 2 |
| Osoa | 52 | 51 | 50 |
| Murriztua | 41 | 41 | 41 |

Atzera bueltatu

**Oharra:** Azaldutako informazioa informazio hutsa besterik ez da. Hautagaien zerrendan izaten den tokiari buruz emandako informazioa ez da inoiz ere, hautagaien zerrendak kudeatzean izan daitezkeen akatsengatik, erreklamazioak egiteko bitarteko bat.Emandako zenbakiek zu baino lehenago ordezkapenak egiteko libre zeuden hautagaien kopurua adierazten dute, informazioa argitara ematen den datan.

* Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenen bidez (Hezkuntza Sailaren web orrian kontsultatu ahal dira) aldatu da zerrenda hau. Zuzentzat jo behar da zu baino lehenago ordezkapenak egiteko libre zeuden hautagaien kopuruari buruz emandako informazioa, goian azaldutako informazioan ez dauden aipatutako aldaketak kenduta.

Pantailak igorritako informazioa hurrengo erara ulertu behar dugu:

- Jardunaldi “Osoa”: aukeretan “osoa bakarrik” edo “osoa + murriztua” jardunaldi mota duten eta gure aurretik dauden hautagai kopurua erakusten da, hizkuntza-eskakizunaren arabera

bereiziz:

  - HE0: irakasteko hizkuntza-eskakizunaren lehentasunaren arabera, euskarazko profila behar ez duten ordezkapenak bete ditzaketen pertsonak barneratzen dira.
  - HE1: irakasteko hizkuntza-eskakizunaren lehentasunaren arabera, HE1eko ordezkapenak bete ditzaketen pertsonak barneratzen dira.
  - HE2: irakasteko hizkuntza-eskakizunaren lehentasunaren arabera, HE2ko ordezkapenak bete ditzaketen pertsonak barneratzen dira.

- Jardunaldi “Murriztua”: aukeretan “murriztua bakarrik” edo “osoa + murriztua” jardunaldi mota duten eta gure aurretik dauden pertsona kopurua erakusten da, hizkuntza eskakizunaren arabera bereiziz:
  - HE0: irakasteko hizkuntza-eskakizunaren lehentasunaren arabera, euskarazko profila behar ez duten ordezkapenak bete ditzaketen pertsonak barneratzen dira.
  - HE1: irakasteko hizkuntza-eskakizunaren lehentasunaren arabera, HE1eko ordezkapenak bete ditzaketen pertsonak barneratzen dira.
  - HE2: irakasteko hizkuntza-eskakizunaren lehentasunaren arabera, HE2ko ordezkapenak bete ditzaketen pertsonak barneratzen dira.

Hezkuntza Berezikoen kasuan (F deialdia), atarian agertzen den informazioa irakasleentzat erakusten denaren berdina da, salbuespen bakarrarekin: egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak/irakasteko hizkuntza-eskakizunei buruzko informazioak HLEA profila kontuan hartzen duela.

## 3.5 Pasahitza berrezarri

Atal honetatik pasahitza aldatu dezakegu, erabiltzaileak pasahitz berria eta gaur egun erabiltzen duen pasahitza ere sartu beharko ditu.



# 4 Lanpostuen kudeaketa

Lanpostuak kudeatzeko pantailatik, irakasle eta hezkuntza bereziko kolektiboko hautagaiek esteka ezberdinen bitartez, hurrengoak egin ditzakete:

- Lanpostuetarako eskaria egin, dagokion epean.
- Eskaera bete, plaza eskaerak ordenatuz eta eskaria baieztatuz.
- Esleipenen emaitzak kontsultatu.

Hezkuntza berezian "Lanean" dauden hautagaiek, plaza huts bat edo bakante bat argitaratzeak kontratua hobetzea badakarkie, plaza-bilatzailean sartu eta hura aukeratu ahal izango dute dagokion ordu-tartean. Email/SMS bat bidaliko zaie, horrelako plaza bat argitaratuko dela jakin dezaten.

"Egoera babestuan" dauden hautagaiek Lehen Ordezkagunearen eskaintza berezian bakarrik eskuratu ahal izango dute plazen eskaera. Ezin izango dute gainerako eskaintzetan parte hartu.

Atariarekin lan egitean, kontuan izan saioari buruzko informazioa nabigatzailearen fitxara mugatuta dagoela; beraz, fitxa bat baino gehiago aldi berean ez erabiltzea gomendatzen da. Hala eginez gero, gogoan izan aldaketak gordetzean, gordeketa egiten den fitxako informazioa bakarrik hartuko dela kontuan.

Atal honetako erlaitz ezberdinen funtzionamendua azalduko dugu orain:

## 4.1 Lanpostuen aukeraketa

Lanpostuen bilatzailea plazak eskatzeko ordu-tartean soilik egongo da erabilgarri (13:30etik 15:30era). Zerbitzura plazen eskaera egiteko ezarritako orduetatik kanpo sartzen bada, pantailan bilatzailea ez dagoela erabilgarri jakinaraziko da.




Plazak hautatu ahal izateko, plazak eskatzeko epea irekita egoteaz gain, izangaiak horretarako beharrezko baldintzak bete beharko ditu.

Ezarritako ordutegiaren barruan sartzean, eskuragarri dauden plazak hiru irizpide ezberdin erabiliz bilatu daitezke (nahitaezkoa da gutxienez bilaketa-irizpide bat sartzea): lurraldea, zerrenda, hizkuntza-eskakizuna.



Irakasle/hezitzaile kolektiboen postuek bilatzaile bera partekatzen dute, eta lanpostuen hautaketa bera da bi kolektiboetako kide diren hautagaien kasuan. Bilaketa-emaitzak erakustean, irakaskuntza-poltsak kolore batean (urdinez) ageri dira, eta hezitzaileak beste kolore batean (laranja), horrela plaza bakoitza zein kolektibori dagokion identifikatzea erraztuz.




Lurraldea hautatu ondoren, plazak eskaintzen diren udalerriak ere hauta daitezke. Lanpostuak dituzten udalerriak agertuko dira; udalerri batek plazarik eskaintzen ez badu, ez da zerrendan agertuko.




Bilaketa egiterakoan zerrenda bat agertuko da, sartutako irizpideak betetzen dituzten plazekin. "Bilatzailea erakutsi" botoiak aurreko leihora eramango gaitu.




Plaza bakoitzerako erakusten den informazioa hurrengoa dugu:






**[1]** Plazaren kodea. Plazaren xehetasunetarako esteka izango da.

**[2]** Ikastetxearen izena eta kokapena.

**[3]** Ordezkapenaren hasiera eta bukaera datak.

**[4]** Ordezkapen mota.

**[5]** Oharrak: Plazak oharrak baditu, zuzenean erakutsiko dira; oharra txartelean sartzen ez bada, puntu etengarriekin amaituko da eta sagua plazaren gainean jarriz erakutsiko du informazio osoa.

**[6]** Eskatutako hizkuntza eskakizuna: Hizkuntza eskakizuna beharrezkoa ez den kasuetan, erakusten duen ikurra gorria izango da; beharrezkoetan denean, ikur hori berde kolorekoa izango da; eta HE0 dutenentzako plazetan berriz, kolore barik agertuko da.

**[7]** Jardunaldi mota.

**[8]** Zeinu-hizkuntza

**[9]** Lanaldi mota

**[10]** Aukeratu.

**[11]** Errelebo kontratua (lanpostua errelebo kontratukoa denean bakarrik erakutsiko da).

**[12]** Hutsik (hezkuntza bereziko kolektiboko lanpostuetarako baino ez da erakutsiko, baldin eta lanpostu hutsa edo bakantea bada).




Plazaren kodearen loturaren gainean klikatzean, plazaren xehetasun guztiak erakutsiko dira.




Hezitzaile kolektiboen postuetarako, lanpostuaren ordutegiari buruzko informazioa ere erakutsiko da (orientagarria).

Halaber, lanpostua **errelebo kontratua** den adieraziko da. Mota honetako plazak, hezitzaileen kolektibokoak eta lanaldi murriztukoak izanez gero, ezaugarri bereziko plaza gisa markatuko dira, borondatez onartuko baitira eta ezin izango baitira nahitaez esleitu. Irakasle kolektibokoak badira, ez zaie tratamendu hori aplikatuko, eta derrigorrez esleitu ahal izango dira lanaldi mota edozein dela ere.

Aukeratzen den plaza bakoitzeko, goiko koadroan gehituko da hautatutako plaza kopuruari, eta plaza berriak hautatzen jarraitzeko aukera izango da, edo lehendik hautatutako plaza batzuen hautaketa bertan behera uzteko.




Edozein unetan, lanpostuak aukeratzeko prozesuan, bilaketa prozesu berri bat egin ahal izango da eta eskabidean plaza berriak gehi daitezke.

Plazen hautaketa amaitutakoan, hautatutako plazen multzoa ikusi ahal izango da "Eskaera bete" botoian klik eginez, edo "Eskaera" fitxan klik eginez**. Kontuan izan behar da, momentu honetan, eskaera oraindik ez dela bidali, hau da, ez dela sisteman baieztatu bezala agertzen**.




## 4.2 Eskaera baieztatu eta bidaltzea

"Eskaera" estekan, erabiltzaileak aukeratutako plazak bistaratuko dira, bere lehentasunen arabera ordenatzeko aukera emanez, eta eskaera bidaltzeko aukera ematen zaio. Bidaltzen badu, eskaera konfirmatuko du.




Esteka honetan hurrengo informazioa agertuko zaigu:




1. Adierazitako helbidetik 50 km baino gehiagora dauden lanaldi murriztuko plazekiko dugun interesari buruzko informazioa (nahitaezko esleipenetarako).
2. **Oharra: "BEHIN BETIKO eskaera bidali" botoia sakatu arte, ez da eskaera burutuko.**
3. Aukeratutako lanpostuak. Ezkerreko aldean plaza bakoitzeko, botoi bi ageri dira:

 Plaza ezeztatu.

 Lehentasuna duten plazak ordenatu ahal izateko botoia (goitik behera).

4. Zirriborroa gorde: eskaeraren zirriborro bat gordetzeko aukera ematen du, eta gero berriro editatu ahal izango da. **Zirriborroa gorde arren, beharrezkoa da gero behin betiko eskaera bidaltzea eskaera berresteko.**
5. BEHIN BETIKO eskabidea bidaltzeko botoia.







Edozein unetan, behin betiko eskaera bidali baino lehen, atzera egin dezakezu edozein bilaketa prozesu berri egiteko eta plaza berriak unekoei gehitzeko. Plaza berriak lehendik daudenen amaieran ordenatuta agertuko dira, eta berrantolatu daitezke erabiltzaileari egokitzeko.

## 4.3 Esleipenaren kontsulta

Atal honetatik, eskatutako eta esleitutako plazei buruzko informazioa kontsultatu ahal izango du hautagaiak, erlaitzetan sartuta:

- Aribideko eskaintza (k).
- Eskaintzen historia




### 4.3.1 Aribideko eskaintza (k)

"Aribideko eskaintza (k)" fitxan, eskatutako plazen esleipenaren xehetasunak kontsultatu ahal izango dira, bai irakasle-plazetarako, bai irakasle ez diren plazetarako (hezitzaileak). Gainera, erabiltzaile bati plaza bat nahitaez esleitzen bazaio, erlaitz horretatik plaza horren esleipen-zerrenda ere kontsultatu ahal izango du.

Erakutsiko den informazioa bat etorriko da hautagaiak eskaera egin duen eta/edo plaza esleitu zaion une horretan martxan dauden eskaintzekin, eta, salbuespen gisa, eskaintza bat baino gehiago egon daitezke.

Eskaintza bakarra badago abian, fitxan sartzean hautagaiak eskaintzan duen parte-hartze motari buruzko informazioa agertuko da, borondatezkoa edo nahitaezkoa izan daitekeena, esleipenaren emaitzarekin batera. Gainera, eskabidean sartutako plazen zerrenda erakutsiko da, baldin eta parte-hartze mota borondatezkoa izan bada, esleitu zaion plazari buruzko informazioarekin batera.

**Aribideko eskaintza(k)** | Eskaintzen historia

| DATA ETA ORDUA | PARTE-HARTZE MOTA | ERLAZIONATUTAKO TIKETA | ESKATUTAKO PLAZA-KOPURUA | PARTE-HARTZEAREN EMAITZA |
|---|---|---|---|---|
| 2025/03/19 10:39:29 | Borondatezko | 20250319-E3507F | 3 | Esleipendun boluntarioa |

| LEHENTASUNA | LANPOSTUA | ZENTRO | TALDE MOTA | JARDUN | EGOERA | ESLEIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (146334) | CEIP Gabriel Aresti HLHI | **Irakasle** | Osoa (100%) | Adjudikaziodun | Ikusi esleipena |
| 2 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (146330) | CPI Juan B. Eguzkitza Meabe IPI | **Irakasle** | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 3 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (146329) | CPI Juan B. Eguzkitza Meabe IPI | **Irakasle** | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |

Une jakin batean eskaintza bat baino gehiago abian badaude, erlaitzera sartzean eskaintza bakoitzean parte hartzeari buruzko informazioa duen zerrenda bat agertuko da, "Ikusi xehetasunak" botoiarekin batera.

**Aribideko eskaintza(k)** | Eskaintzen historia

| DATA ETA ORDUA | PARTE-HARTZE MOTA | ERLAZIONATUTAKO TIKETA | ESKATUTAKO PLAZA-KOPURUA | PARTE-HARTZEAREN EMAITZA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 2025/02/27 15:20:16 | Borondatezko | 20250227-F6042E | 106 | Esleipendun boluntarioa | Ikusi xehetasunak |
| 2025/02/26 13:48:00 | Borondatezko | 20250226-F2042A | 1 | Nahitaezko esleipenduna | Ikusi xehetasunak |

"Ikusi xehetasunak" sakatzean, hautagaiaren parte-hartzearen xehetasunera joko da. Parte-hartze mota borondatezkoa izan bazen, eskatutako plazei buruzko informazioa erakutsiko da. Parte hartzearen ondorioz plaza bat nahitaez esleitu bazaizu, esleitutako plazari buruzko informazioa ere zerrenda honetan agertuko da, lehenengo postuan.

Aribideko eskaintza(k) | Eskaintzen historia

**Erreferentzian eskatutako plazak20250227-F6042E**

Zuk eskatutako plazen zerrenda 2025/02/27 15:20:16

| LEHENTASUNA | LANPOSTUA | ZENTRO | TALDE MOTA | JARDUN | EGOERA | ESLEIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | HHI/UOHI - HHI HAS/ERD Z. (10026127) | CEPA Basauri Denon Eskola HHI | **Irakasle** | Osoa (100%) | Adjudikaziodun | Ikusi esleipena |
| 2 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10026119) | Busturia Eskola Saiakuntzarako Zentroa | **Irakasle** | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 3 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025688) | CEIP El Casal HLHI | **Irakasle** | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 4 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025225) | CEIP Dunboa HLHI | **Irakasle** | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 5 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025725) | CEIP Kareaga-Goikoa HLHI | **Irakasle** | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 6 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025336) | CEIP Adurza Ikastola HLHI | **Irakasle** | Partziala (33.33%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 7 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025337) | CEIP Miguel De Cervantes HLHI | **Irakasle** | Partziala (33.33%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |

Plaza bat baliogabetu bada, «Egoera» zutabean «Eguneko eskaintzatik ezabatutako plaza» mezua agertuko da, gorriz nabarmenduta.

“Ikusi esleipena” botoian klik egiten badugu, esleipenaren xehetasunak ikusi ditzakegu.

ordezka gunea

**Esleipenaren xehetasuna PEEE - ESAE (65702)** Nola egiten da esleipena?

Jarraian **03/04/2024 10:31:52** egunean egindako **CEIP Murumendi HLHI** ikastetxeko **65702** plazarako **borondatezko esleipena** (r)en xehetasuna erakusten da Mapa ikusi

1orrialdea 78tik > >>

| HAUTAGAIA | ESLEIPENAREN EGOERA | ZERRENDA | ESLEIPENEN ZERRENDAKO POSIZIOA |
|---|---|---|---|
| *****925* | Eskatzailerik ez | F | 1 |
| *****670* | Eskatzailerik ez | F | 2 |
| *****413* | Eskatzailerik ez | F | 3 |
| *****710* | Eskatzailerik ez | F | 4 |
| *****726* | Eskatzailerik ez | F | 5 |
| *****416* | Eskatzailerik ez | F | 6 |
| *****108* | Eskatzailerik ez | F | 7 |
| *****331* | Eskatzailerik ez | F | 8 |
| *****500* | Eskatzailerik ez | F | 9 |
| *****552* | Eskatzailerik ez | F | 10 |

1orrialdea 78tik > >>

Hurrengo pantailan honako informazioa dago ikusgai:

- Hautagaiak: NAN zenbakia ezkutatua.
- Esleipen zerrendan hautagaiaren egoera.
- Hautagaiak parte hartzen duen zerrenda.
- Esleipen zerrendan hautagaien ordena.

Horrez gain, esleipenaren xehetasunean ikastetxearen kokapena erakusten duen mapa bat kontsultatzeko aukera dago (“Mapa ikusi” aukera).



## 4.3.2 Eskaintza Historia

"Eskaintzen historia" erlaitzean, egungo ikasturtean amaitutako eskaintza guztiei buruzko informazioa agertuko da, esleipena izan dutenak eta hautagaiak parte hartu eta/edo esleipendun suertatu direnak.

Daten arabera iragazi ahal izango da, eskaintza zehatz bat errazago aurkitzeko.

Erlaitzera sartzean, amaitutako eskaintza bakoitzean parte hartzeari buruzko informazioaren zerrenda agertuko da, "Ikusi xehetasunak" botoiarekin batera.




| DATA ETA ORDUA | PARTE-HARTZE MOTA | ERLAZIONATUTAKO TIKETA | ESKATUTAKO PLAZA-KOPURUA | PARTE-HARTZEAREN EMAITZA | |
|---|---|---|---|---|---|
| 2025/02/27 15:20:16 | Borondatezko | 20250227-F6042E | 106 | Esleipendun boluntarioa | Ikusi xehetasunak |
| 2025/02/26 13:48:00 | Borondatezko | 20250226-F2042A | 1 | Nahitaezko esleipenduna | Ikusi xehetasunak |

"Ikusi xehetasunak" sakatzean, hautagaiak eskaintza horretan duen parte-hartzearen xehetasunera joko da. Parte-hartze mota borondatezkoa izan bazen, eskatutako plazei buruzko informazioa erakutsiko da. Parte hartzearen ondorioz plaza bat nahitaez esleitu bazitzaion, esleitutako plazari buruzko informazioa ere zerrenda horretan agertuko da, lehenengo postuan.




| LEHENTASUNA | LANPOSTUA | ZENTRO | TALDE MOTA | JARDUN | EGOERA | ESLEIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | HHI/UOHI - HHI HAS/ERD Z. (10026127) | CEPA Basauri Denon Eskola HHI | Irakasle | Osoa (100%) | Adjudikaziodun | Ikusi esleipena |
| 2 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10026119) | Busturia Eskola Saiakuntzarako Zentroa | Irakasle | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 3 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025688) | CEIP El Casal HLHI | Irakasle | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 4 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025225) | CEIP Dunboa HLHI | Irakasle | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 5 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025725) | CEIP Kareaga-Goikoa HLHI | Irakasle | Osoa (100%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |
| 6 | LEHEN HEZKUNTZA - LEHEN HEZK. (10025336) | CEIP Adurza Ikastola HLHI | Irakasle | Partziala (33.33%) | Ez adjudikazioduna | Ikusi esleipena |

Plaza bakoitzaren "Ikusi esleipena" botoia sakatuz gero, esleipenaren xehetasunak dituen zerrendan sartuko gara.

## 4.3.3 Esleipena errefusatu

Ikasturtean zehar, Irakasle eta Hezkuntza Bereziko kolektiboetako hautagaiek honako uko hauek egin ahal izango dituzte:

- Irakasleek, ikasturte bakoitzean, nahitaezko esleipen bati uko egin diezaiokete, askatasunez eta zigorrik jaso gabe.

•Hezkuntza Bereziko hautagaiek ikasturte bakoitzean borondatez edo nahitaez esleitutako plaza bati uko egin diezaiokete. Kasu horretan, espezialitateka egingo da errefusen kontagailua. Hau da, hautagaia N espezialitatetan badago, horietako bakoitzerako errefusen kontagailu indibiduala izango dute, eta espezialitate bakoitzeko adjudikazio bat baztertu ahal izango dute.

Hautagaiak uko egin diezaioke plaza bati, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

• Plaza edozein eratako lanaldikoa izan daiteke

• Plaza borondatez edo nahitaez esleitu bada Hezkuntza Bereziaren kasuan

• Plaza nahitaez esleitu bada irakasle-taldearentzat

• Lanpostua ez izatea kontratua hobetzekoa edo errelebokoa

• Baimendutako borondatezko erreusen gehieneko kopurua gainditu ez bada

• Hautagaiaren lan-egoera "OKUPATUA" izatea

• Ikastetxeak hautagaia aurkeztu gabekotzat jo ez badu

Aurreko baldintzak betetzen badira, "Uneko eskaintza" fitxan, "Ez onartu plaza" botoia agertuko da esleitutako plazaren ondoan, eta horrek aukera emango dizu eskaintza ez onartzeko.




"Ez onartu plaza" botoia eskuragarri egongo da, halaber, esleitutako plazari buruzko informazio xehean sartuz gero.



"Atzera bota" botoia sakatzean, hautagaiari eskatuko zaio "ERABILGARRI" edo "EZ ERABILGARRI" zein lan-egoeratara aldatu nahi duen hautatzeko.




Plaza baztertu ondoren, dena ondo joan bada, mezu bat agertuko da, errefusa

behar bezala gorde dela adieraziz. Plazaren egoeran, baztertua izan dela adieraziko da.




"Atzera bota" botoi hori hautagaiari plaza esleitzen zaion unetik ordezkapena hasten den eguneko goi zeko 8:00ak arte egongo da erabilgarri.

"Lanpostuak hautatzeko informazioa" atalean izangaiak kurtsoan metaturik dituen errefusa kopurua ko ntsultatzen ahalko du, bai eta onartzen diren errefusen gehieneko kopurua ere.



Onartutako baztertze kopurua gaindituz gero, mezu bat agertuko zaio, eta bertan adieraziko zaio gehienezko baztertze kopurura iritsi dela eta ezin duela berriz ere ukatu zigorrik jaso gabe esleitutako plaza gehiago.




Gainera, "Errefusen historikoa" botoiaren bidez, ikasturtean egindako errefusen historikoa kontsulta daiteke.






# 5 Lan egoera

Orain, lan egoera ezberdinei buruzko informazioa eta Ordezkagunea atarian eurei lotutako funtzionaltasunak azalduko ditugu.

## 5.1 Lan egoerari buruzko informazioa

Langile hautagaiek beren lan egoerari buruzko zenbait izapide egin ahal izango dituzte ataritik, irakasle zein hezitzaile kolektibokoak izan. Alde horretatik, kontuan izan behar da kolektibo bakoitzak bere berezitasunak dituela:

- Irakasle kolektiboetako hautagaien lan egoera bakarra da maila/ikasgai guztietarako.
- Hezitzaileen lan egoera bereiztua dago irakasleen kolektibotik. Halaber, egoera hau ez da orokorra maila osorako, eta espezialitate bakoitzak bere egoera bereiztua izan dezake, eta ezberdina izan daiteke kategoria mota bakoitzerako (fisioterapeuta, HLE, okupazio-terapeuta etab…).

Plazen eskaerari begira, hautagai batek interesatzen zaizkion lanpostuak eskatu ahal izango ditu plaza horiek betetzeko baldintzak betetzen baditu eta kolektibo horretarako bere lan-egoera "**Lan egiteko moduan**" baldin bada.

- Irakasle kolektiboko hautagai bat "Lan egiteko moduan" agertzen bada, irakasle lanpostuetan parte hartu ahal izango du
- Hezitzaile kolektiboko hautagai bat, "Lan egiteko moduan" agertzen bada, hezitzaile lanpostuetan parte hartu ahal izango du
- Hautagai bat bi kolektiboetakoa bada, aurreko arauak independenteki beteko dira (ez dago inolako interferentzia edo elkarreraginik bi kolektiboetarako lan-egoeren artean, ezta hezitzaileen taldeko espezialitateen artean ere).

Adibidez, hezkuntza-laguntzako espezialista espezialitatean "Lanean" bezala ageri den pertsona batek irakasle lanpostuak hauta ditzake, baldin eta irakasle zerrendetan badago eta kolektibo horrentzako lan-egoera "Lan egiteko moduan" bada.

Lanpostuen esleipenei dagokionez:

- Pertsona batek lanpostu bat baino ezin dezake eskuratu eguneroko eskaintzan, kolektibo zein espezialitate bat baino gehiagotan agertu arren "Lan egiteko moduan".
- Edozein kolektibo zein espezialitatetan "Lanean" moduan agertzen den hautagai batek ezin du inolaz ere derrigorrezko esleipen bat jaso.

Pertsona bat honako lan-egoera hauetan egon daiteke:

- "Lanean": irakasle/hezitzaile gisa lanean (eskola publikoa).
- "Lanerako prest": ordezkapenak betetzeko prest.
- "Ez lanera prest": borondatez ordezkapenak betetzeko prest ez dagoela adierazten duen hautagaia, inolako justifikaziorik behar izan gabe.
- "Babestutako egoera": bere zirkunstantziengatik (lan-istripua, amatasuna/aitatasuna, etab.) ordezkapenak bete ezin dituen hautagaia, baina egoera horretan dagoen bitartean merezitzeko (puntuatzeko) eskubideari heldu nahi diona.
- "Behin-behineko zigorra": aldi jakin batean ordezkapenak bete ezin dituen izangai zigortua (normalean, ordezkapen bat betetzera joan ez delako). Ordezkapen-kolektiborako bakarrik aplikatzen da.
- "Behin betiko baja": zerrendetako behin betiko baja.

## 5.2 Lan egoeraren historikoa

“Nire datuak” > “Plazak hautatzeko informazioa” > “Lan-egoeraren historikoa” atalean, hautagaiak bere lan-egoera desberdinen aldaketen historikoa kontsultatu ahal izango du (irakasle edota hezkuntza bereziko edozein espezialitatetakoa).




“Lan egoeraren historikoa” botoian klik eginez, dagokion kategoriako lan-egoeren historikoa bistaratuko da.



Lan egoeraren historikoa

| Data | Lehengo egoera | Egoera berria | Nor | Información del curso académico |
|---|---|---|---|---|
| 2022-04-27 12:22 | Lanean / Ocupado | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:22 | Lanean / Ocupado | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:18 | Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada | Lanean / Ocupado | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:18 | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lanean / Ocupado | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:18 | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lanean / Ocupado | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:18 | Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada | Lanean / Ocupado | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:18 | Lanean / Ocupado | Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:18 | Lanean / Ocupado | Justifikatutako Uko Egitea / Renuncia Justificada | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:15 | Lanean / Ocupado | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:15 | Lanean / Ocupado | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:11 | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lanean / Ocupado | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:11 | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Nustifikatu Gabeko Uko Egitea / Renuncia Sin Justificar | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-27 12:11 | Lanean / Ocupado | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-22 15:13 | Lanean / Ocupado | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-22 15:13 | Lanean / Ocupado | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-22 14:53 | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Lanean / Ocupado | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-22 14:53 | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Lanean / Ocupado | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-22 14:51 | Lanean / Ocupado | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |
| 2022-04-22 14:51 | Lanean / Ocupado | Lan Egiteko Moduan / Disponible | Lurralde Ordezkaritza | 21/22 |

1. orria, 0-etik

Itxi

## 5.3 Lan egoera aldatzea

Jarraian, Ordezkagunea ataritik lan-egoerarekiko egin daitezkeen ekintzak azaltzen dira. Hurrengo taulan erakusten den bezala, abiapuntuko lan-egoeraren arabera, sistemak lan-egoera zuzenean aldatzeko edo telematikoki aldaketa eskaera ordezkaritzara bidaltzeko aukera emango du.

| Hasierako lan egoera | Aldaketa egiteko aukerak |
|---|---|
| **Lanean** | Lan-egoera aldatzea "Lanerako prest"<br>"Ez lanerako prest" lan-egoera aldatzea<br>"Babestutako egoerara" aldatzeko eskaera |
| **Lanerako prest** | "Ez lanerako prest" lan-egoera aldatzea<br>"Babestutako egoerara" aldatzeko eskaera |
| **Ez lanerako prest** | "Lanerako prest" dagoen lan-egoera aldatzea<br>"Babestutako egoerara" aldatzeko eskaera |
| **Babestutako egoera** | "Lanerako prest" dagoen lan-egoera aldatzea |
| **Behin-behineko zigorra** | Ez aurkeztea justifikatzeko eskaera [*] |
| **Behin betiko baja** | - |

[*] ***OHARRA***: ez da lan-egoeraren aldaketa. Eskabidea jasotzen duen ordezkaritzak erabakiko du zer aldaketa egin hautagaiaren konfigurazioan (adibidez, penalizazio-aldia aldatzea).

**Sistemak lan-egoera aldaketak egiten uzten du 9:30etik 13:00etara bitartean.** Pertsonak bere lan-egoera ordu-tarte horretan aldatzen badu “Lan egiteko moduan” egoerara, egun horretan bertan parte hartu ahal izango du plazen aukeraketan. Aldaketa 13:00etatik aurrera eskatu nahi baduzu, zure ordezkaritzari eskatu behar diozu aldaketa, eta hurrengo egunean parte hartu ahal izango duzu plazen aukeraketan.

Prozedura posible hauek irakasle kolektiboari zein hezkuntza bereziko kolektiboari dagozkio. Hezkuntza bereziaren kasuan, hautagaiak modu independentean kudeatu ahal izango du parte hartzen duen espezialitate bakoitzaren lan-egoera (bat baino gehiagotan parte hartuz gero).

Hautagaiak bere lan-egoera modu autonomoan alda dezakeen kasuetan, honako pantaila agertuko da eta bertan aldaketa baieztatu ahal izango da.




Ondorengo ataletan, lan-egoera telematikoki ordezkaritzari aldatzeko (“Lanean”/”Lanerako prest”/”Ez lanerako prest” izatetik “Babestutako egoera” izatera) eta ez aurkeztea justifikatzeko eman beharreko pausoak zehazten dira.

# 5.4 Behin-behineko zigorra: ez aurkeztea justifikatzea

Hautagaiaren lan-egoera "Behin-behineko zigorra" bada, lan-egoeraren egoerarekin batera penalizazio-aldiaren amaiera-dataren berri emango da.

Ataritik, "Behin-behineko zigorra" egoeran dauden pertsonentzat, dokumentazioa bidali ahal izango da dagokion ordezkaritzara, ez aurkeztea justifikatzeko eta lan-egoera "Lanerako prest" egoerara aldatzeko eskatzeko. Eskabidea jasotzen duen ordezkaritzak erabakiko du zer aldaketa egin hautagaiaren konfigurazioan, eta horrek penalizazio-aldia aldatzea ekar dezake.




Dokumentazioa eransteko, sistemak dokumentazioa zein lurralde historikotara bidali behar duen erabakiko duen pertsonari eskatuko dio, bai eta, irakasleen kasuan, zein mailatara bidali behar duen ere. Aukeraketa horren arabera, jarraitu botoia sakatzen denean, leiho berri bat irekiko da dokumentazioa bete eta erantsi behar duen inprimakiarekin.



Honako informazio hau bete beharko da:

- Aldaketa-eskaera justifikatzeko arrazoiaren deskribapena.
- Justifikazio-eskaeraren euskarri diren agiriak eranstea (gehienez 3 dokumentu).

Inprimakiak telematikoki erregistratuko du informazio hori jaso izana. Gainera, jakinarazpen bat bidaliko zaie informazio horren kudeatzaileei eta eskaera egin duen pertsonari.

Behin dokumentazioa bidalita, "Justifikatu ez dela aurkeztu" botoia "Ikusi ez aurkeztea justifikatzeko eskera" izango da, eta, horrela, bidalitako dokumentazioa kontsultatu ahal izango da.







Aplikazioak ez du inola ere kontuan hartuko pertsonak beste bide batetik bidali ahal izan duen dokumentazioa. Informazio hori lan-egoeraren historikoa aukeratik ere eskuratu ahal izango da.

# 5.5 Babestutako egoera aktibatzeko eskaera

Hautagaia Lanerako prest, Lanean edo Ez lanerako prest badago, "Plazak hautatzeko informazioa" ataletik, babestutako egoera aktibatzea eskatu ahal izango du (merezimendu moduan).

Eskaera egiteko formulariora sartzeko aukera soilik izango dute babestutako egoeran ez dauden hautagaiek, baldin eta beren lan-egoeretako bat Lanerako prest, Lanean eta Ez lanerako prest bada.




"Babestutako egoera aktibatzeko eskatzea" botoia sakatzean, sistemak dokumentazioa eman behar zaion ordezkaritzaren lurralde historikoa hautatzeko eskatuko dio pertsonari. Aukeraketa horren arabera, gorde botoia sakatzen denean, leiho berri bat irekiko da dokumentazioa bete eta erantsi behar duen inprimakiarekin.




Formulario honetan, hautagaiak honako informazio hau bete beharko du:

- Merezimendu-aldia hasi nahi duen hasiera-data.
- Zergatik eskatzen duen egoera babestua aktibatzea.
- Eskabidea justifikatzeko dokumentazioa. Gehienez 3 dokumentu erantsi ahal izango dira.
- Bere egoera babestuak sortuko duen puntuazioari dagokionez, besterik adierazi ezean, irakasleen zerrendari aplikatuko zaio. Formularioan, hautagaiak aukera izango du puntuazioa bere hezitzaile-zerrendetan aplikatzeko, irakasle-zerrendan aplikatu beharrean.

Behin dokumentazioa bidalita, "Babestutako egoera aktibatzeko eskatzea" botoia "Ikusi babestutako egoera aktibatzeko eskaera" izango da, eta, horrela, bidalitako dokumentazioa kontsultatu ahal izango da. Informazio hori lan-egoeraren historikoa aukeratik ere eskuratu ahal izango da.







Hautagaiak merezimendu gisa egiten duen urratsa baliozkoa izango da soilik ordezkaritzak eskaeraren aldeko ebazpena ematen duen unetik aurrera (informazio gisa, araudiak 10 eguneko epea ezartzen du eskaera ebazteko).

Eskaera kudeatu ondoren, ezingo da beste aldaketarik egin eskabidean.

Eskaera onartzen bada, "BABESTUTAKO EGOERA" lan-egoera kolektibo guztiei (irakasle/hezitzaile) eta hautagaiaren zerrendei aplikatuko zaie.

Hau da, hautagai bat aldi berean badago irakasleen eta hezitzaileen zerrendetan, edo kolektibo baten hainbat deialditan:

- Zure lan-egoera babestuta geratuko da parte hartzen duzun kolektibo/deialdi/irakasgai guztietan.
- Bere egoera babestuak sortuko duen puntuazioari dagokionez, besterik adierazi ezean, irakasleen zerrendari aplikatuko zaio. Eta izangaiari jokabide lehenetsia aldatzeko aukera emango zaio, puntuazioa bere hezitzaile-zerrendetan aplika dadin, eskabide-inprimakian adierazita.




Hautagaiak merezimendu-aldia amaitu nahi badu, modu autonomoan egin ahal izango du ataritik, bere lan-egoera "LANERAKO PREST" egoerara aldatuz.



"EGOERA BABESTUTIK", “LANERAKO PREST" egoerara aldatzea kolektibo guztiei (irakasle/hezitzaile) eta hautagaiaren zerrendei aplikatuko zaie.




## 5.6 Interesgarriak diren ordu tarteak

Ondorengo ordutegiak berdin aplikatuko zaizkie irakasleei eta hezkuntza berezikoei.

- **Eguneroko plazen eskaintza argitaratzeko eta eskaerak egiteko ordutegia**: eskaerak 13:30etik 15:30era bitartean egin daitezke.
- **Esleipenak ikusteko ordua:** esleipena prozesua amaitutakoan egongo da Ordezkagunean ikusgai, ohiko ordua 15:45ean izanik, nahiz eta ordu hori aldatu egin daitekeen eskainitako plaza kopuruaren arabera.
- **Nire lan-egoera aldatzeko orduak:** sistemak 9:30etik 13:00etara soilik onartzen ditu lan-egoeraren aldaketak/aldaketa-eskaerak.
- **Esleitutako plazari uko egiteko ordutegia**: plaza ukatzea adjudikazioa amaitzen denetik ordezkapena hasten den eguneko goizeko 8:00ak arte egin ahal izango da.

# 6 Datu ekonomikoen eskaera

Atarian identifikatu ondoren, datu ekonomikoak eskatuko dira hautagaiak honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Plazak eskatzeko gaituta dagoen zerrendaren batekoa da.
- Orain arte ez du kontratu-harremanik izan Hezkuntza sailarekin.
- Oraindik ez du datu ekonomikorik eman.
- Plaza baten esleipedun izan da.

Baldintzak betez gero, hurrengo informazioa eskatuko da nabigatzen jarraitu ahal izateko:

- Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia.
- Banku-kontua.
- Banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.
- Erantzukizunpeko adierazpenaren kontrol-laukia.
- Baimena nortasun-datuak egiaztatzeko.
- Baimena Gaizkileen Erregistro Zentraleko informazioa biltzeko.
- Baimena unibertsitate-tituluak kontsultatzeko.
- Baimena unibertsitatez kanpoko tituluak kontsultatzeko.

**Nahitaezkoa izango da eremu guztiak betetzea.**

Sagua bete beharreko eremu bakoitzeko ikonoaren gainean jartzen bada, eremu bakoitzean sartu beharreko datuei buruzko informazioa agertuko da.






Titulartasuna egiaztatzeko erantsi beharreko dokumentuaren tamaina gehienez 1 MB-koa izango da, eta baimendutako luzapenak PDF, JPG, PNG eta TIFF dira.

Dokumentua hautatzean, zuzena baldin bada botoia berdez agertuko da eta botoiaren testuan hautatutako dokumentuaren izena agertuko da:




Dokumentuak baimendutako tamaina edo luzapena betetzen ez badu, dagokion errore-mezua bistaratuko da:




Hautagaiak bankuko datuei eta Gizarte Segurantzaren filiazio zenbakiari buruzko informazioa aurrez eman bazuen, baina titulartasunaren ziurtagiria erantsi eta erantzukizunpeko adierazpena onartu ez bazuen, **berriro aterako zaio** datu ekonomikoak eskatzeko pantaila. Irakurtzeko moduan agertuko zaizkio aurrez sartu zituen kontu-zenbakia eta GSko zenbakia, eta eremu berrien informazioa bete beharko du jarraitu ahal izateko:




Aldez aurretik datu ekonomikoak eman badira (Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia, Banku-kontua, Banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria eta Erantzukizunpeko adierazpenaren kontrol-laukia) baina baimen berriak aktibatuta ez badaude, datu ekonomikoen pantaila irekiko da jada emandako informazioarekin irakurketa moduan bakarrik.

Informazio hori ezin izango da aldatu, eta atarian nabigatzen jarraitu ahal izateko, markatzeko falta diren baimenen Check-ak aktibatu beharko dira eta aldaketak gorde.




Hautagaiak informazioa bete eta gorde beharko du atarian nabigatzen jarraitu ahal izateko. "Deuseztatu" botoia sakatzen bada, hautagaia atariaren hasierako orrira birbideratuko da; bertan berriro identifikatu beharko da berriz sartu nahi baldin badu.




Aurrez adierazitako baldintzak betetzen dituztelarik plaza bat esleitu zaien erabiltzaileen kasuan, erabiltzailea atarian identifikatzen denean **nahitaez** bete beharko du datu ekonomikoen informazioa jarraitu ahal izateko. Hautagaiari mezu elektroniko/SMS bat bidaliko zaio Ordezkagunea atarira sartzeko eta bere datu ekonomikoak betetzeko eskatuz.

Datu ekonomikoak gordetzerakoan, emandako datuak zuzenak direla egiaztatuko da:

- Emandako datuak ez badira zuzenak, dagokion errore-mezua bistaratuko da.
- Emandako datuak zuzenak badira, emandako datuak behar bezala gorde direla adierazten duen mezu bat agertuko da, "Jarraitu" botoiarekin batera.




"Jarraitu" botoia sakatzean, informazioa eskatzeko pantaila itxi egingo da eta normaltasunez jarraitu ahal izango da ataritik nabigatzen.

Informazioa gorde ondoren, datu ekonomikoak eskatzeko pantaila **ez zaio berriro erakutsiko** erabiltzaileari.

# 7 Ohiko zalantzak: F.A.Q's

## 7.1 Informazio orokorra

### 7.1.1 Ordezkagunea, plazak esleitzeko sistema berria al da?

**Bai,** Ordezkagunea hezkuntza-zentroetako lanpostu hutsen estaldura telematikoki kudeatzeko sistema automatizatu berria da.

### 7.1.2 Ez dut deirik jasoko ikastetxeen plazen esleipenak esleitu zaizkidan jakiteko?

Oro har**, ordezkaritzek ez diete (egungo) telefono deirik egingo hautagai izan daitezkeenei hezkuntza-zentroetan hutsik dauden lanpostuak estaltzeko**, hauek Ordezkagunearen bitartez kudeatuko direlarik. Baina **salbuespenez, ordezkaritzek deitu ahal izango dute.**

### 7.1.3 Ordezkagunerako sarbide-datuak, Hezigunerako sarbide-datuen berdinak al dira?

**Bai,** sarbide-datuak (erabiltzailea eta pasahitza) berdinak dira. Gainera hemendik pasahitza berreskura dezaket ahaztuz gero, eta Hezigunekoarekin sinkronizatuta jarraituko du.

### 7.1.4 Zein gailu/nabigatzailerekin erabil dezaket Ordezkagunea?

Ordezkaguneak horretarako ziurtagiria du eta behar bezala funtzionatu beharko luke ***gailu mugikorretan (Smartphone/Tablet) eta ordenagailu pertsonaletan***, Chrome, Safari, Firefox... nabigatzaile estandarretan, eta sistema eragile ezberdinetan (Windows, Android, IOS, Macintosh, Linux, etab.)

## 7.2 Helbidea eta harremanetarako datuak balioztatu

### 7.2.1 Zelan balioztatu dezaket nire helbidea?

Ordezkaguneak (martxan jarri aurretik) sistemak automatikoki "geolokalizatu" ezin izan dituen hautagaien ohiko helbide guztiak baliozkotzeko aukera ematen du; horretarako, helbide guztiak kodetzen ditu eta ohiko helbidearen koordenatu geografikoak (latitudea eta longitudea) kalkulatzen ditu, EAEko ikastetxeetako koordenatuak eskuragarri dituen bezala.

***Balioztatu gabeko helbide guztietarako, Ordezkaguneak lehen aukera gisa hau baliozkotzea eskatuko du (baita plazak betetzeko kudeaketa-aldian ere).***

### 7.2.2 Aldatu dezaket nire helbidea balioztatu baino lehen ?

**Bai,** sistemak helbidea aldatzeko eskatzen badit (hasierako unean), egin ahal izango da, helbidea balioztatu aurretik, beti ere .

### 7.2.3 Helbidea aldatu dezaket behin balioztatua izan eta gero?

**Ez,** sistemak automatikoki balioztatutako helbide horiek guztiak, edo Ordezkagunean sartu bezain laster balioztatu direnak, ezin dira Ordezkagunearen bidez aldatu. Izangaiak dagokion Lurralde Ordezkaritzari eskatu beharko dio aldaketa, hala badagokio, Ordezkaritzak eskatutako dokumentazio osagarria bidaliz.

### 7.2.4 Zergatik da beharrezkoa helbidea balioztatzea?

Helbideen kodeketa eta geokokapena beharrezkoa da **izangaiaren ohiko helbidearen eta lanpostuak estaltzeko beharrak dituzten hezkuntza-zentroen arteko distantzia (errepidez) kalkulatzea dakarten prozesuak baitaude,** adibidez, jardunaldi murriztuko ordezkapenetarako.

Langile hautagaiek 50 km baino urrunago dauden jardunaldi murriztuko plazen indarrezko esleipenetan parte hartzeari uko egiteko aukera zehaztu ezean, **sistemak distantzia hori baino gehiagora dauden plazak esleitu ahal izango ditu.**

Beraz, hautagaia EZ BADA SARTZEN plazak hautatzera eta ez badie berariaz uko egin 50 km baino gehiagora dauden jardunaldi murriztuko plazei, mota guztietako lanpostuak eskatzen dituela ulertuko du sistemak.

### 7.2.5 Zelan kalkulatzen du atariak distantzia?

Sistema gaur egun erabiltzen den berbera da, nahiz eta, ordezkaritzetako teknikariek eskuz egin beharrean, horretarako Google Maps-ek eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzen diren.

### 7.2.6 Zein datu balioztatu edo aldatu ditzaket?

Helbidea baliozkotzeko prozesuan eta/edo edozein unetan, edozein hautagaik bere harremanetarako telefono-zenbakiak egunera ditzake, eta **gutxienez telefono mugikor bat eta posta elektroniko bat sartu beharko ditu. Biak erabiliko dira eguneko balizko esleipenaren komunikazio/jakinarazpenerako.**

## 7.3 Eskabide/esleipenen kudeaketa prozesua

### 7.3.1 Egunero argitaratuko dira ikastetxeen beharrak betetzeko lanpostuak?

**Bai,** Ordezkaguneak egunero argitaratuko ditu hezkuntza-zentroetan bete beharreko lanpostu guztiak, ikastetxearekin eta lanpostu bakoitzaren ezaugarriekin batera, hautagaiek interesgarri zaizkienak eska ditzaten.

### 7.3.2 Komenigarria da egunero plazen hautaketa egitea?

**Bai,** Ordezkaguneak egunero argitaratuko ditu lanpostu guztiak eta, ***derrigorrezkoa ez den arren, komenigarria da "Lan egiteko moduan" dauden hautagaiak atarira sartzea eta interesatzen zaizkion eskaerak egitea/lehenestea.*** Izan ere, ***sistema estali behar diren lanpostuak betetzen saiatuko da zerrendetan eta "Lan egiteko moduan" dauden hautagai guztiekin,*** hau da, une horretan ordezkapenik betetzen ari ez diren eta/edo indarrean dagoen lan-kontraturik ez dutenekin, ***eskaerarik egin duten ala ez kontuan eduki gabe***.

### 7.3.3 Lan egiteko moduan banago baina ez badut eskabiderik egin, plazarik esleitu diezadake sistemak?

**Bai,** sistemak derrigorrez esleitu diezaioke plaza bat "Lan egiteko moduan" egoeran dagoen hautagaiari, nahiz eta plaza eskaerarik egin ez.

### 7.3.4 Zirriborro egoeran dagoen eskaera batean, plaza gehiago gehitu ditzaket?

**Bai,** zirriborro-egoeran dagoen eskaera (bidali gabea), edozein unetan bete daiteke, eskatzaileari interesatzen bazaio interes-aukera berriak gehituz. Horiek lehendik daudenen azpian jarriko dira, eta eskatzaileak nahi bezala berrantolatzeko aukera izango du..

### 7.3.5 Eskaera nire nahiekin bat datorrela ziurtatu behar dut bidali aurretik?

**Bai,** funtsezkoa da eskaera bidali aurretik gehien interesatutako plazak eta nahi den ordenan gehitu direla ziurtatzea, **behin bidalita ez baitago eskaera aldatzeko aukerarik**.

### 7.3.6 Aldatu dezaket bidalitako eskaera?

**Ez,** behin bidalita ez dago aldatzeko aukerarik.

### 7.3.7 Eskatu ditzaket 50 km baino gehiagora dauden plazak, eskaera orokorrean aukera horri uko egin badiot?

**Bai,** modu orokorrean uko egitea markatu bada ere, eskatzaileak 50 km baino gehiagora dagoen lanaldi murriztuko lanpostu bat hautapenean (espresuki) sartzen badu, aukeraketa baliozkoa izango da.

### 7.3.8 50 km baino gehiagora dauden plazekiko interesaren aukera gaitzen/ desgaitzen badut, aukerak bere horretan dirau aldaketa berri bat egin arte?

**Bai,** hautagaiak 50 km baino gehiagora dauden jardunaldi murriztuko plazen indarrezko esleipenean parte hartzeko aukera markatzen/desmarkatzen badu, sistemak hautapena mantenduko du hautagaiak aukera aldatu (gaitu/desgaitu) arte.

### 7.3.9 Zein ordu tartetan egin dezaket eskaera?

Dokumentu honetako “Interesgarriak diren ordu tarteak” atalean ikus ditzakezu eskaeren ordutegiak.

### 7.3.10 Zer gertatuko litzateke zirriborro egoeran dagoen eskaeraren bidalketa egingo ez banu?

Eskaera ez da prozesuan sartuko eta beraz ez du eraginik edukiko; sisteman gordeta geratu arren, ekintzarik egin ez balitz bezala izango da.

### 7.3.11 Zer gertatuko litzateke eskaera horretarako ordu tartea igaro ondoren bidaliko banu?

Kasu honetan ez luke prozesuan parte hartuko, ezin izango bailitzateke bidali eskaria eta, beraz, ez bailitzateke onartua izango. Ordutegia garrantzitsua dela kontuan hartu.

### 7.3.12 Egunero kontsultatu behar ditut esleipenak Ordezkagunean?

**Bai,** hautagaia zerrendetan "Lan egiteko moduan" egoeran egonez gero, ***nahitaez sisteman sartu beharko da egunero***, egunean eskainitako plazaren baten ordezkapena betetzeko ***esleipenik egin zaion egiaztatzeko***.

### 7.3.13 Oharrik jasoko al dut plazarik esleitzen bazait?

**Bai,** hautagaiari plaza bat esleitzen bazaio, posta elektronikoz eta SMS bidez jasoko du horren berri. ***Baina kontuan izan behar da jakinarazpena ez jasotzeak ez duela salbuesten hautagaia Ordezkagunean sartu eta egiaztatzetik, eta hurrengo egunean esleitutako plaza estaltzera ikastetxera joatetik***. Plaza esleitu eta ordezkaritzaz kanpoko arrazoiengatik oharra ez jasotzeak edo berandu jasotzeak ez du hautagaia salbuesten.

### 7.3.14 Zer gerta daiteke esleitutako plazan aurkezten ez banaiz?

Hautagaia esleitutako plazan aurkezten ez bada dagokion justifikaziorik gabe, zerrendetatik kanpo geratu daiteke, araudiak dioenari kasu eginez.

### 7.3.15 Zergatik da garrantzitsua edozein lan egin ezinen aurrean, ordezkaritzara abisatzea?

Garrantzitsua da ordezkapen-zerrendetako edozein kidek aldez aurretik eta, gertatzen denean, dagokion ordezkaritzari ez duela ordezkapenik egin ahal izango jakinaraztea, ez bada abian den ordezkapen baten ondorioz (esaterako lan-kontratua, gaixotasuna...); sistemak ez dezan kontuan hartu eguneroko esleipenerako eskuragarri dauden hautagaien poltsan.

## 7.3.16 HLE kategorian lanean banago, irakasleen kolektiboko plazak aukeratu ditzaket?

**Bai,** irakasleen zerrendetan "Lan egiteko moduan" bazaude, plaza bat eska dezakezu irakasle gisa. Dena den, Saileko ikastetxe publikoetan Hezkuntza Laguntzako Espezialisten kategorian 3 urteko zerbitzua egiaztatuta ez baduzu ezar litekeen zigorrari buruz informatu beharko zara. Era berean, HLE kategorian lanean bazaude, Heziketa Bereziko gainontzeko kategorietako plazak eskatu ahal izango dituzu "Lan egiteko moduan" bazaude kategoria horietan. Hala ere, (kasu horretan) HLEko zerrendetatik kanporatua izango zinateke eskatutako beste plaza hori esleitzen bazaizu.

## 7.3.17 HLE kategorian lanean banago, eta irakasle plaza bat esleitzen bazait, zer egin beharko nuke?

Esleitu zaizun lanpostuan aurkeztu beharko zinateke hurrengo egunean, lanean ari zaren ikastetxean HLE-ko lanpostura ez zarela aurkeztuko abisatuz.

## 7.3.18 Adibidez HLE kategorian lanean banago, irakasle kolektiboan nahitaezko plaza bat esleitu ahal didate?

Ez, kolektibo batean jada lanean bazaude, ez zaizu plazarik esleituko indarrez. "Lanean" bazaude, zuk zeuk borondatez aukeratutako plazak bakarrik esleitu ahal izango zaizkizu.

# 8 Eranskina

## 8.1 Ordezkagunean parte hartu eta esleipenen prozesua

“Lan egiteko moduan” egoeran dauden langileek eguneroko plazen eskaintzan borondatez parte hartzea edo ez aukeratu dezakete, Ordezkagunea atarian eskaerak eginez. Langile hautagaiek eskabideen atarian ikusiko dituzten lanpostuak, eta, beraz, borondatez eskatu ahal izango dituztenak, beren profilaren konfigurazioaren arabera bete ditzakeen lanpostuak soilik izango dira.

Borondatez parte hartu ez duten izangaiei, edota parte hartu baina eskatutako plazarik esleitu ez zaienei, nahitaez esleitu ahal izango zaie plaza, kasu hauetan izan ezik:

- Plazak ezaugarri bereziak baditu; izan ere, plaza horiek borondatezko eskabideen bidez soilik bete daitezke
- Lanpostua lanaldi murriztuko lanpostua bada, ikastetxea hautagaiaren etxetik 50 kilometro baino gehiagora badago, eta pertsonak bere lehentasunetan adierazi badu ez duela 50 kilometro baino gehiagora dauden lanaldi murriztuko lanposturik bete nahi.
- Hautagaia, esleipena emateko unean, bere edozein lan egoeratan (irakasle edo hezitzaile izan) “Lanean” agertzea.

Esleipen prozesua bi zatitan banatzen da:

1. **Borondatezko esleipena**: hautagaiek beren borondatez eskatutako lanpostuak esleitzen saiatuko da sistema. Lanpostuak borondatez eskatu eta esleipen-zerrendan posizio hobean daudenei emango zaizkie.
2. **Derrigorrezko esleipena**: borondatez esleitu ez diren plazak nahitaez esleitzen saiatuko da sistema (eskatzailerik izan ez dutelako edota aurreko prozesuan ezin izan direlako esleitu), beren ezaugarri bereziengatik indarrez esleitu ezin diren lanpostuak alde batera utzita. Plazak, borondatez eskatu gabe, esleipen-zerrendan posizio baxuagoan dauden izangaiei emango zaizkie, beti ere hautagaiak adierazitako distantzia lehentasuna errespetatuz plaza jardunaldi murriztukoa bada. Irakasleen eta hezitzaileen kolektiboan aldi berean dauden pertsonen kasuan, lehentasun handiagoa emango zaie hezkuntza bereziko lanpostuei (hezitzaileenei), irakasleei baino.

Pertsona bati eguneroko eskaintzan plaza bakarra eman ahal izango zaio, aldi berean irakasle eta hezitzaileen kolektibokoa izan arren, edo hezitzaileen kolektiboko hainbat espezialitatetakoa.

Hezkuntza Saileko irakaskuntza eta/edo hezkuntza bereziko zerrendetan "Lan egiteko moduan" egoeran dauden izangai guztiek nahitaez egunero sartu beharko dute sistemara, ordezkapenen bat betetzeko plazarik esleitu zaien egiaztatzeko.

## IRAKASKUNTZAKO ESLEIPEN-ZERRENDA ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK

Hautagai baten esleipen-zerrendako posizioa zerrenden arteko lehentasun irizpide hauen araberakoa izango da, beti ere izangaiak espezialitate-baldintza betetzen duela kontuan hartuta:

1. **Birbaremazioko zerrenda orokorra (A),** urteroko birmaremazio-prozesuko hautagaiek osatua, puntuazioaren arabera ordenatuta.
2. **Eskaintza publikoko (EPE) zerrenda bereiztua (B),** espezialitateko hautaketa-prozesuetako probak gainditu eta hautatuak izan ez diren izangaiek osatua. Pertsona hauek Ordezkagunean parte hartuko dute plazarik gabe geratu diren baina gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik aurrera (horretarako deialdi espezifikoa atera ondoren), hautaketa-prozesuan lortutako emaitzaren arabera ordenatuta, eta hurrengo ikasturtean birbaremazioko zerrenda orokorrean sartuko dira.
3. **Aparteko irekieren zerrenda orokorra**, hizkuntza eskakizunen baldintzak eta, hala badagokio, Prestakuntza Pedagogiko eta Didaktikoa betetzen dituzten hautagaiek osatua. Pertsona horiek dagokien irekierako onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren hartzen dute parte. Zerrenda hori abizen eta izenaren arabera alfabetikoki ordenatuta dago, eta urtero zozketatzen den letratik hasiko da. Letra horrek zehaztuko du dagokion ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan zein izango den ordena alfabetikoa.
4. **Une oro irekita dauden zerrendetan aurkeztutako eskaerak.** Eskaera onartuta duten pertsonek parte hartu ahal izango dute, zerrendan onartua izan eta hurrengo egunetik aurrera, data eta orduaren arabera ordenatuta.
5. **Birbaremazioko zerrenda bereiztua HE barik (C),** Gainontzeko baldintzak beteta ere, hizkuntza eskakizunik ez duten hautagaiek osatua, puntuazioaren arabera ordenatuta.

## EZOHIKO IRAKASLE ZERRENDAK

Heziketa Pedagogiko eta Didaktikoko masterra ez duten hautagaiek osatutako zerrenda bereiziak (D eta E) ez dira Ordezkaguneko esleipen prozesuan sartzen, nahiz eta zerrenda horietan sartzen direnei telefonoz deitu ahal izango zaien salbuespenez ordezkapenak eskaintzeko, goian aipatutako zerrendetan hautagairik ez balego.

## HEZITZAILEEN ANTOLAKUNTZARAKO IRIZPIDEAK

Hasiera batean, eguneroko eskaintzaren kudeaketan sartuko diren zerrendak hauek izango dira:

- F zerrenda: Hezkuntza Bereziko birmaremazioko zerrenda.
- F1 zerrenda: aurreko ikasturtean, 2023/08/31ra arte, zerrenda irekiak mantenduz zerrendetan izena eman duten Hezkuntza Bereziko langileak.
- F2 zerrenda: ikasturte honetan, irailetik aurrera, zerrenda irekiak mantenduz zerrendetan izena eman duten Hezkuntza Bereziko langileak.
- G zerrenda: hizkuntza eskakizunaren betekizunik gabeko aparteko irekiera (zerrenden indarraldia: 2022/08/31).

Honakoa izango da zerrenden arteko lehentasuna beste zerrendekiko:

- Borondatezko esleipena: F, F1, F2, G.
- Derrigorrezko esleipena: borondatezkoaren alderantzizkoa, G, F2, F1.